

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKO ETA SOZIESTATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2012ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, EAEn partaidetza % 50etik gorakoa zutenena. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ondoko sozietateetan:

- STC-ELS, SA
- VISESA
- ET-FV, SA

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2012ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Langileriarri dagokionez, HKEEk azpimarratu du ET, SAk urratu egin duela 2012ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrek onesten dituen 2/2012 Legea, 70 langile modu mugagabeen kontratatzeagatik; izan ere, Legeak 23. XGn ezartzen du merkataritza sozietate publikoek ezingo dutela langile gehiago kontratatu, nola eta ez diren lehiaketak lehenagoko ekitaldietan abiarazi edota Legea indarrean sartu zenean programa edo urte anitzeko planen esparruan jada nahitaezko ez ziren.

Berebat, Epaitegiak adierazi du sozietate horretan bertan ez dela bete edo ezin egiaztatu izan dela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direnik kontratu finkodun bi pertsonen kasuan eta aldi baterako kontratudun hiruren kasuan.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez ez-betetze jakin batzuk azaleratu dira hiru sozietate publikoetan; azpimarratzekoa da hiru sozietateetan gastuak kontratu txiki modura izapidetu direla, Kontrataziorako Barne Aginpideetan ezarritako prozedurak urratuz.

Berebat, azpimarragarria da ET, SAK eta ELS, SAK, hurrenez hurren, bat eta bost babesletza kontratu gauzatu dituztela, zuzenean esleitu dituztenak, publikotasun eta lehiarik gabe.

Sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, egoki erakusten dute 2012ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza; badira, ordea, txostenean bertan jaso diren eta ondarean eraginik ez duten bi salbuespen, ET, SAri dagozkionak.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki aurrekontuari, langileriari eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkie.